

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

EAE 2014

EMAITZA TXOSTENA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

EAE 2014 EMAITZA TXOSTENA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2016eko abuztua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA	6
1.1. Helburuak	6
1.2. Fitxa teknikoa	7
1.3. Azterlanaren behaketa-eremua	8
1.4. Aztertutako kontzeptuak	10
1.5. Gastoa kontsolidatzeko prozesua	12
1.6. Segida historikoa	14
2. KULTURA GASTUAREN BILAKAERA 2008-2014 ALDIAN	15
2.1. Kulturaren egindako gastuaren bilakaera	15
2.2. Kulturaren egindako gastuak herri-administrazioen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa	16
2.3. Bestelako sail eta arloek kulturaren egindako gastua	19
2.4. Erakunde mota bakoitzak kulturaren egindako gastuaren bilakaera	21
2.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera	31
3. KULTURA-GASTUA ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA	34
3.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera	34
3.2. Kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera	36
3.3. Kulturaren egindako gastua kultura-esparruen eta administrazio-mailen arabera	41
4. HERRI-ADMINISTRAZIOEN MULTZOAK KULTURAN EGINDAKO GASTUA	55
4.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean	55
4.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua	57
4.3. Helmugan kontsolidatutako gastua	61
5. KULTURA-ARLOKO ENPLEGU PUBLIKOA	67
6. LABURPEN GISA	71
I. ERANSKINA. 2014ko azterlanean parte hartu duten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak, lurralde historikoen arabera	76
II. ERANSKINA. 2014an parte hartu duten udalak, biztanleriaren arabera	78
III. ERANSKINA. Eraitzen laburpena kultura-esparruen arabera	81

AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko laugarren *Finantzaketa eta gastu publikoa Kulturaren* estatistika txostena aurkezten du, 2014 urteari dagozkion datuekin. Bertan 149 udalen eta 54 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen aurrekontuak aztertu dira, hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuez gain.

Metodologiaren ikuspuntutik, galdetegiaren xehetasunak eta kontsolidazio bikoitz baten bidez gauzatzen den arazketa-mailak datuen kalitatearen maila zehatz-zehatza bermatzen dute. Operazio estatistiko hau baliatzen da batez ere, informazio-iturri nagusi gisa, herri-administrazioen kultura-politikak aztertzeko, eta EAE osoko datuak eskaintzen dituen bakarra da berau.

Azterlanak kuantitatiboki eta objektiboki irudikatzen du sektore horren pisua aurrekontu publikoen osotasunean, sektore bakoitzaren lehentasunak, programa eta inbertsio puntualen gastuaren osotasunean duen eragina, esku-hartze publiko mota eta administrazioaren logika funtzionala. 2008-2014 aldiko bilakaeraren eta 2010-2014 aldiko gastu kontsolidatuaren datuak aurkeztuko dira. Saihestezina eta aldi berean etsigarria da 2008. urtearekiko konparaketa egitea. Urte horretako testuingurua eta gastu-bolumena urrun geratzen dira 2014ko egoeratik. Hala ere, nabarmendu beharra dago 2012tik hona egoera egonkortzen ari dela.

Txostenak bi arrazoiengatik ez du eragile jakinen egoeratan sakontzen: erakunde publikoak izan arren konfidentzialtasuna derrigorrezkoa delako eta azterlanaren ekarpena begirada orokorra delako.

Azkenik, azpimarratzekoa da aztertutako erakunde guztien inplikazioa. Kulturaren, kontu-hartzaitzaren eta ekonomiaren arloko teknikarien laguntzarik gabe, ezingo litzateke azterlana burutu. Behatokiak eskerrak eman nahi dizkie guztiei parte hartzeagatik, eta kultura-eragileei gonbidapena luzatu nahi die bai parte hartu duten erakunde bakoitzarentzat bai kultura-politikak ezagutzeko interesa duen publikoarentzat egiten dituen euskarri eta txostenetako emaitzak ezagun ditzaten.

1. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

1.1. Helburuak

Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren estatistikaren helburua da, oinarrian, EAEko herri-administrazio nagusiak kulturaren egiten ari diren ekarpen ekonomikoen eta inbertsioaren tamainaren panoramika eskaintzea. Zehatzago esanda, honako hauek:

- EAEko herri-administrazioko gobernu-mailek kulturaren egiten duten gastua zein den jakitea.
- Kultura-arloan egindako gastu publikoaren izaera ekonomikoa aztertzea.
- Kultura-arloan egindako gastu publikoaren banaketa aztertzea kultura-esparruen eta -sektoreen arabera.
- EAEn kultura-arloan egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta hobetua ematea.
- Bana-banako informazioa eta alderaketari zein bilakaerari buruzko erreferentziak ematea azterlanean parte hartu duen erakunde bakoitzak kulturaren egindako gastuari dagokionez.
- Euskal herri-administrazioek komunikabideetan egiten duten gastuari buruzko informazioa biltzea.
- Kultura-arloko enplegu publikoaren hurbilketa izatea.

1.2. Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena
Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren estatistika. Euskal Autonomia Erkidegoa.
Eragiketaren estatusa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egina. Eustatek ofizialdua.
Maiztasuna
Bi urtez behingoa
Eragiketa-mota
Erroldan oinarritua: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak; baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak ¹ Laginetan oinarrituta: 5.000 biztanletik beherako udalak
Informazio bilketa
Fitxa egituratuaren (paperezko euskarrian zein euskarri informatikoan), laguntza teknikoaren eta lankidetzaren bitartez informazioa zuzenean biltzeko prozesua, erakunde bakoitzaren ezaugarri eta beharrezanetara egokituta.
Informazioa biltzeko aldia
2015eko iraila – 2015eko abendua
Informazioaren erreferentzia-urtea
2014
Erantzun-maila
Erakundeen % 100
Landa-lana egiteko ardura izan duen enpresa
Siadeco
Diseinua kontrastatzeko eta baliozkotzeko prozesua
Herri-administrazioetako arduradunak, azterlana abiarazi baino lehenagoko hainbat lan-taldetan parte hartu zutenak

¹ 1.3. atalean zehazten dira azterlanean sartzeko irizpideak.

1.3. Azterlanaren behaketa-eremua

Estatistika honek azterketa-oinarri hauek hartu ditu barnean:

- Eusko Jaurlaritzari, hiru foru-aldundiei eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalei (71) egindako errolda-izaerako landa-lana.
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietako herri-administrazioen lagin adierazgarri bati (78 udali) egindako landa-lana; 5.000 biztanletik beherako udalerrien % 43 dira horiek, eta halako udalerrietako biztanleen % 43 bizi da horietan².
- Administrazio baten edo hainbaten mendekoak diren, nahiz horien % 100eko partaidetza duten erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei egindako errolda-izaerako landa-lana. Multzo horretan sartzen dira 2014an administrazioetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso zituzten partaidetza publikodun erakundeak (54 guztira).

Ondorengo figuran xehatzen da operazioaren irismena, kontsultatutako erakunde mota desberdinen arabera.

1. irudia. **Aztergai den unibertsoa eta laginaren irismen-ratioak**

	UNIBERTSOA		LAGINA		LAGINAREN IRISMENA	
	Entitate-kop.	Biztanleak	Entitate-kop.	Biztanleak	Entitateen %	Biztanleriaren %
Udalak	251	2.172.877	149	2.043.625	59,4	94,2
< 5.000 biztanle	180	224.956	78	95.704	43,3	42,5
5.000 y 20.000 biztanle	53	559.860	53	559.860	-	-
> 20.000 biztanle	15	624.359	15	624.359	-	-
Hiriburuak	3	763.702	3	763.702	-	-
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	54	-	54	-	-	-
Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza	4	2.172.877	4	2.172.877	-	-
GUZTIRA	309	2.172.877	207	-	67,0	-

Erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko txostenarekiko aldaketa jakin batzuk izan direla, bi erakunde parte-hartzaile berri gehitu baitira eta sei erakunde kanpoan utzi.

² Txosten honetan, lagineko jatorrizko udalerrri bat (Fruiz) beste batekin ordezkatu behar izan da (Artzentales).

Azterlan honetara lehen aldiz gehitutakoak:

- **Donostia 2016 Fundazioa**
- **Bilbao Bizkaia Museoak SL:** Bilboko Berreginen Museoak eta Euskal Museoak bat egin zuten 2014 uztailan eta Bilbao Bizkaia Museoak SL erakunde bakarra sortu zuten. Hori dela eta, zein bere aldetik bildu dira Bilboko Berreginen Museoa eta Euskal Museoa bateratu arteko banakako aurrekontuen informazioa (alegia, 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko ekainaren 30a bitartekoa) alde batetik, eta Bilbao Bizkaia Museoak SLren 2014ko uztailaren 1etik abenduaren 31 bitarteko aurrekontuen informazioa, bestetik.

Azterlan honetatik kanpo utzitako erakundeak:

- **Zain Fundazioa:** Zain Fundazioak jarduera eten zuen azterlan hau gauzatu baino lehen, eta azkentzeko eta kitatzeko eskaera eginda dago; hortaz, ez du izan azterlanean jasotzeko moduko jarduerarik.
- **Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa – Arabarri:** Arabarri Sozietateak jarduera eten zuen azterlan hau gauzatu baino lehen.
- **2012 Fundazioa:** Eusko Jaurlaritzako fundazio horrek jarduera eten zuen azterlan hau gauzatu baino lehen.
- **Burdinbidea SAU:** sozietateak ez du 2014ko kontuen likidazioa Ortuellako Udalean aurkeztu, eta ondorioz adierazi du ezinezkoa dela azterlan hau gauzatzeko beharrezkoak diren datuak ematea.
- **Debako Udal Liburutegi Patronatua:** azterlan hau gauzatu baino lehen, patronatu horren jarduera Debako Udalaren eskuetara pasatu da, eta hori dela eta, estatistika honetan, Debako liburutegiari buruzko informazioa Debako Udalaren berezko informazioarekin batera jaso da.
- **Gorlizko Kultur Etxea:** azterlan hau gauzatu baino lehen, organismo autonomo horren jarduera Gorlizko Udalaren eskuetara pasatua zen, eta hori dela eta, estatistika honetan, Gorlizko Kultur Etxeari buruzko informazioa Gorlizko Udalaren berezko informazioarekin batera jaso da.

Datuen bilketa eta azterketa ez da kultura-sailetara edo -arlotara mugatu; aitzitik, beste esparru edo sail batzuek kultura-arloko gastu bat egitera bideratutako partiden inguruko informazioa eskuratu eta erantsi da. Beraz, kultura-sailek eta -arloek kudeatzen ez dituzten baina hala ere kultura-gastutzat jotzen diren aurrekontu-partidak ere jaso dira azterlanean.

1.4. Aztertutako kontzeptuak

Azterlan hau ez da mugatu kultura-sailek eta -arloek kudeatutako aurrekontuarekin lotutako begirada espezifikora; aitzitik, sail horiek kudeatzen ez dituzten baina azterlan honetan kultura-gastutzat hartu diren aurrekontu-partidak ere bildu ditu. Informazio horretatik abiatuta, honako kontzeptu hauen arabera sailkatu da gastua:

Kultura-helmuga: esparruen deskribapena

Ondarea

- **Ondarea eta arkeologia.** Arkitektura- eta arkeologia-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, birgaitzea, aztertzea, babestea eta hedatzea. Dokumentu-ondarea eta bibliografia-ondarea ez dira atal honen barnean hartu, ezta museoen esparruaren zati den ondarea ere.
- **Liburutegiak.** Liburutegietako funtsak mantentzea eta erostea, baita liburutegiak sustatzen dituzten jarduerak ere. Era berean, bibliografia-ondarea katalogatzeko, babesteko eta zaharberritzeko faseak ere atal honen barnean hartu dira, baita liburutegien esparru fisiko edo juridikoaren barruan gauzatzen ez diren kasuetan ere.
- **Artxiboak.** Dokumentu-artxiboak eta -ondarea sortzea, mantentzea, katalogatzea, hedatzea, eta horiekin lotutako funtsak erostea.
- **Museoak.** Arte plastiko erakusketa antolatuak. Museoak sortzea, mantentzea, publizitazioa eta horiekin lotutako funtsak erostea.

Arte eta industriak

- **Antzerkia eta dantza.** Antzerki- eta dantza-ikuskitzak; arte eszenikoen esparru profesionaleko sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea. Era berean, zirkua eta antzerkiaren inguruko beste hainbat jardura eszeniko ere atal honen barnean hartzen dira, baina ez opera.
- **Musika.** Zuzeneko musika-emanaldiak, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sorkuntza, ekoizpen nahiz hedapenerako laguntzak). Musika-eskolei dagokienez, arautu gabeko hezkuntza eta prestakuntza besterik ez dira sartzen.
- **Ikusizko arteak.** Pintura- eta eskultura-erakusketak, eta ikusizko beste hainbat arte erakusketa; sorkuntza, ekoizpen eta hedapenerako laguntzak.
- **Zinema eta ikus-entzunezkoak.** Lan zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa: idatzizko lanak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.
- **Literatura eta argitalpena.** Argitalpenak eta literatura sustatzea: idatzizko lanak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.

- **Kultura-ekintza.** Espezializatu gabeko jaialdiak, ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik bultzatutako programak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak (gizarte-zentroak, kultura-etxeak, etab.) amateurismoa eta kultura-partaidetza biltzen dira atal honetan.
- **Bertsolaritza.** Egitura eta zerbitzu egonkorrak mantentzeko eta babesteko gastua aztertzen da atal honetan (bertso-eskolak, elkarteak, eta abar babestea).

Jaiak eta herri-kultura

Udalerrietako herri-jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak eta jarduerak ere. Jaien barnean hartutako gastuen multzoa kultura-gastutzat hartu da.

Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak

Kultura-azpisektore jakin bati egotzi ezin zaizkion eta kultura-arloaren funtzionamendukoak diren gastu orokorrak hartzen dira atal honen barnean. Kultura-gastu espezifikoa egozteko kalkulua egin da zerbitzu horiek kultura-alorretik kanpoko beste zenbait esparru eta sektore ere kudeatu dituzten kasuan, hala nola, kirol-, gazteria-, edota euskara-sektoreetan.

Komunikabideak

Komunikabide publikoei, pribatuei eta sozialei laguntzea eta horiek finantzatzea hartzen da atal honen barnean. Kulturaren azpisektore gehigarritzat jo dira hedabideak, eta horrenbestez, ez dira sartu guztizko kultura-gastuari buruzko datuekin batera.

Gastu kontsolidatuaren izaera ekonomikoa: aztertutako partidak

Azterketa honetarako, aurrekontu publikoetako gastuaren sailkapen ekonomikoa erabili da, kapitulu hauek biltzen dituena:

Gastu arruntak

- **I. kapitulua.** Langileria-gastuak: soldatak eta ordainsariak biltzen ditu, bai eta enplegatzaileak ordaindu beharreko kuotak, prestazioak eta gastu sozialak ere.
- **II. kapitulua.** Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak: zenbait gastu arrunt biltzen dituzte, hala nola, erosketen kudeaketa, zerbitzuen azpikontratazioa eta ekipoak konpontzeko gastuak.
- **III. kapitulua.** Finantza-gastuak: jaso diren zor, gordailu eta finantza guztien interesek eragindako gastuak.
- **IV. kapitulua.** Transferentzia arruntak: onuradunen kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzeko bestelako erakunde publiko nahiz pribatuetara bideratutako kredituak biltzen dituzte.

Kapital-gastuak

- **VI. kapitulua.** Inbertsio errealak: kultura-azpiegitura berrietarako, arte-lanetarako, hornidurak berritzeko eta abarretarako inbertsio iraunkorrak egiteko behar diren zuzkidurak.
- **VII. kapitulua.** Kapital-transferentziak: inbertsioak finantzatzera bideratutako zuzeneko kontraprestaziorik gabeko ordainketak.

Finantza-aktiboak eta -pasiboak

- **VIII. kapitulua.** Finantza-aktiboak: finantza-aktiboak erosteko eta gordailuak eta fidantzak eratzeko erabilitako kredituak.
- **IX. kapitulua.** Finantza-pasiboak: zorrak amortizatzen eta hirugarrenek eraturako gordailuak eta fidantzak itzultzera bideratutako kredituak.

Kultura-enplegua

Kultura-arloan enplegatutako langileei buruzko informazioa biltzen da, sailkapen honen arabera:

- **Administrazioko enplegua:** I. kapituluko funtsen bidez finantzaturako erakundearen enpleguari dagokio.
- **Azpikontatutako enplegua:** erakundearen funtzionamendurako azpikontatutako langileria, gainerako kapitulu-tako (II.a eta IV.a) funtsen bidez finantzaturakoa, ekipamenduetara eta Administrazioaren zerbitzuetara bideratzen den heinean.

Batean zein bestean, bi profil edo lanbide-eginkizun mota bereizten dira:

- **Kultura-kudeaketarekin eta -jarduerarekin lotutako langileria:** Kultura-arloko langileak: kudeaketa eta administrazioko zuzendariak, teknikariak eta langileak (zuzendarien profilaren barruan sartzen dira politikari liberatuak –zinegotziak, adibidez–, I. kapituluko funtsen bidez ordaintzen badira).
- **Laguntza-langileak eta zeharkakoak:** Kultura-arloak kudeatutako aurrekontu-partidek finantzaturako laguntza-langileak eta zeharkakoak, besteak beste, garbiketa, mantentze-lanetarako teknikariak (muntatzaileak, argizatzaileak, garraiolariak, etab.) eta segurtasunekoak.

1.5. Gastua kontsolidatzeko prozesua

Azterlan honetan bildutako informazioa aztertutako erakundeek obligazio aitortuen fasean likidaturako 2014ko aurrekontuetan oinarrituz lortu da. Lehen informazio-mailari likidaturako gastua deritzo, eta azterketa-unibertsoa osatzen duten entitateek kulturara bideratu zuten gastu gordina zein den jakiteko aukera ematen digu.

Informazio horretatik abiatuta egin da gastuaren kontsolidazioa. Garbiketa-prozesu horren bitartez, azterlanean parte hartu duten erakundeen arteko transferentzia ekonomikoetatik eratorritako kontabilitate bikoitza neutralizatzen da (gastu eta diru-sarreraren IV. eta VII. kapituluak). Horri esker, azterlanak kulturaren egindako gastu "garbia"ri buruzko datuak eskaintzen ditu. Txostenean, kontsolidatze-prozesuaren ondoren lortutako gastuari 'kultura gastu' deritzo.

EAEko kultura-gastu publikoaren ikuspuntu osoa eta globala ematearren, kontsolidatze-prozesu bikoitza egin da:

Kontsolidazioa administrazio-mailen arabera

Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen gastuari buruzko datuak izateko, horien mendeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kontsolidatze-prozesua egin da.

Sektore publikoa barne hartzen duen logikan oinarrituta, gastu publikotzat jo da beren baliabide gehienak (% 50, gutxienez ere) EAEko herri-administrazio batetik edo gehiagotatik datorren sozietate publikoen edo fundazioen gastua. EAEko herri-administrazioen ekarpena diru-sarreraren % 50era iristen ez denean, ostera, erakunde horietara egindako transferentziak soilik sartzen dira azterketan, baina horien gastu guztiak ez dira jo gastu publikotzat.

Metodologiaren ikuspuntutik, ez dira berdin aplikatu estatistika-eragiketak barne hartzen dituen erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioentzako kontsolidazio-mekanismoak, horien izaera juridikoaren eta osaeraren arabera baizik (kontrola eta ekarpenen zenbatekoa aintzat hartuta). Horrela, aplikatutako metodoa hiru trataera ezberdinetatik abiatzen da, erakundeen ezaugarrien arabera, beheko taula honetan azaltzen den moduan:

Entitate mota	Ekarpenen ezaugarriak	Osaera	Aplikatutako kontsolidazio mota
Erakunde autonomoak	-	Entitate bakarra	Integrazio globala
Sozietate publikoak eta fundazioak	Erakundearen baliabideen % 50 baino gehiago osatzen duten laguntza publikoak ditu.	-	Azterlanetik kanpo
		Entitate bakarra	Integrazio globala
		Kide anitzeko taldea (bi entitate edo gehiago), baliabideen % 60 baino gehiago osatzen duten laguntzak ematen dituen entitate bat du.	Integrazio globala
		Kide anitzeko taldea (bi entitate edo gehiago) Ez du baliabideen % 60 baino gehiago osatzen duten laguntzak ematen dituen entitaterik.	Integrazio proporzionala

Lehenengo prozesuaren emaitzek administrazio-mailaren araberako kultura gastuari buruzko datuak ematen ditu, eta horiek 3. kapituluan aurkezten dira.

EAEko administrazioen arteko kontsolidazioa

Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko transferentziak identifikatzean oinarritzen da. Bigarren prozesu honen emaitzak 4. kapituluan azartzen dira, eta informazioa ematen du EAEko herri-administrazio guztiek jatorrian eta helmugan egindako kultura-gastu kontsolidatuari buruz.

- **Jatorrian kontsolidatutako gastua:** kontsolidazio mota horrek partiden jatorria erakusten du. Transferentzia finantzatzen duen erakundeari lotuta dago, eta berau jasotzen duen erakundeari zenbateko bikoiztua kentzen zaio.
- **Helmugan kontsolidatutako gastua:** kontsolidazio mota horrek transferentzien helmuga erakusten du. Transferentziak finantzatu den erakundeari lotuta dago, eta hori finantzatu duen erakundeari bikoiztutako zenbatekoa kentzen zaio.

Aintzat hartutako metodologiaren azken helburua da hiru administrazio-mailen eta EAE osoaren sektore publikoaren erretratu zehatz eta osoa eskaintzea.

1.6. Segida historikoa

Kulturaren Euskal Behatokiak 2008ko datuak bilduz abiarazi zuen *EAEko Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren* estatistikaren lehen edizioa. Estatistika horrekin eman zitzaion hasiera bi urtez behingo denbora-segida bati; segida horrek abiapuntu eta erreferentzia gisa balio du herri-administrazioek kulturaren egindako gastuaren bilakaera aztertzeko.

Bigarren eta hirugarren azterlanek EAEko herri-administrazioek kulturaren egindako gastuaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzen zuten datuak txertatu zituzten; azterlan honek, berriz, bilakaera horren ikuspegi zabalagoa ematen digu, 8 urteko epealdia hartzen baitu barne.

Bilakaeraren ikuspegi horri esker, EAEko herri-administrazioek azken urteotan kulturara bideratutako baliabide publikoen bilakaeraren berri izateko aukera dugu.


2. KULTURA-GASTUAREN BILAKAERA 2008-2014 EPEALDIAN

2.1. Kulturen egindako gastuaren bilakaera

EAEko herri-administrazioen kultura-gastu likidatua 524,7 milioi eurokoa izan zen 2014an. Hamar eurotik lau udalei dagozkie (214 milioi euro), hamarretik hiru erakunde publikoen mendeko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioei (155,7 milioi euro) eta gainerakoa banatu egiten da Eusko Jaurlaritzaren (79,2 milioi euro) eta foru-aldundien artean (76,8 milioi euro).

Oro har, berean dirau 2008. urtearekiko beheranzko dinamikak, ñabardura batzuekin bada ere: azken bi urteetan, kulturen egindako gastuaren gutzitzea % 1,6 murriztu da, eta horrek adierazten du euskal administrazioek 2012an baino 8,5 milioi euro gutxiago bideratu dituztela kulturara.

2. irudia . Kulturen egindako gastua, entitate motaren arabera (eurotan). 2008-2014



Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak
2008-2014	▲ 19,6%	▼ 26,7%	▼ 29,3%	▲ 10,8%
2012-2014	▲ 18,1%	▼ 2,8%	▼ 1,4%	▼ 6,3%

Udaletan, beherakadarik handiena 2010 eta 2012 bitartean eman zen, bitarte horretan 78,8 milioi euro galdu baitziren; 2012tik 2014ra tartean aurrekontua egonkor samar mantendu zen, guztira 3,1 milioi euro gutxiago izan baitziren. Foru-aldundien aurrekontua gero eta murriztagoa da 2008tik aurrera, bereziki 2010ean eta 2012an; aurreko txostenaren aldean, 2,2 milioi euro gutxiago kudeatzen dituzte.

Organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioek bestelako trataera eskatzen dute, kontuan hartuta estatistikaren ondoz ondoko txostenetan izandako errolda-aldaketak. Hori dela eta, bilakaeraren analisia zuhurtziaz egin beharra dago. Azterlanean erakunde batzuk gehitu eta beste batzuk desagertu izanak azaltzen du, neurri batean, 2008az geroztik egindako gastuan izandako % 11ko hazkundea eta % 6,3ko jaitsiera 2012rekiko³. Horri gehitu egiten zaio inbertsioen edo proiektu estrategikoen eragina erakunde-multzo horren gastu osoari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuaren hazkundearen atzean Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai baten ondoriozko ezohiko inguruabar bat dago, harrobiaren aprobetxamenduaren zati bat galtzarengatik emandako kalte-ordain moduan, Praileaitz leizea Sailkatutako Kultura-Ondasun izendatzearen ondorioz. Kalte-ordain hori 18,4 milioi eurokoa izan da. Aurrekontuen osotasunarekiko duen pisuak baldintzatzen ditu Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuaren bilakaera eta ezaugarri nagusiak.

2.2. Kulturaren egindako gastuak herri-administrazioen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa


2014an, kulturaren egindako gastuaren pisua aurrekontu osoen % 7,6 izan zen udalen kasuan, % 2,9 foru-aldundien kasuan eta % 0,8 Eusko Jaurlaritzaren kasuan.

Udalek egiten dute kultura arloan ahaleginik handiena, baina jarraitu egiten du haien kasuan ere kulturak pisua galtzeko duen joera, beste esparru batzuekiko. Hain zuzen, horien aurrekontu globalen susperraldia (% 2,2) ez da islatzen kulturaren egindako gastuarekin, % 1,4 murriztu baita 2012koarekiko. 2008tik hona bi puntu inguru murriztu da kulturara bideratutako gastua Euskadiko udalerrien guztizko gastuarekiko.

Aldundiek susperraldi arina erakutsi dute 2012. urtearekiko, beren guztizko aurrekontuen jaitsiera dela eta (% 10etik hurbil), beren kultura-aurrekontuena baino handiagoa (% 2,8). Eusko Jaurlaritzak, beste arloetan dituen eskumenak direla eta, ratorik txikiena du eta horren balioa oso gutxi hazi da; izan ere, guztizko aurrekontua urritu du (% 1,9) eta, aldi berean, kultura-gastua hazi egin du (% 18,1).

³ Begira txostenaren 1.3. ataleko azalpena.

3. irudia. **Kulturan egindako gastua guztizko aurrekontuei dagokienez, administrazio-mailaren arabera (%) 2008-2014**



Aldakuntza 2008-2014	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
Kultura-aurrekontua	▲ 19,6%	▼ 26,7%	▼ 29,3%
Aurrekontua, guztira	▲ 7,9%	▼ 10,2%	▼ 14,0%

Aldakuntza 2012-2014	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak
Kultura-aurrekontua	▲ 18,1%	▼ 2,8%	▼ 1,4%
Aurrekontua, guztira	▼ 1,9%	▼ 9,7%	▲ 2,2%

Udalerri txikienek egiten dute kultura-ahaleginik handiena (8,2). Ahalegin hori ez bada ere estatistika honen lehenengo edizioetan bezain handia, eta beste udal motatan baino apur bat gehiago murriztu bada ere, handiena izaten jarraitzen du.

Nahiz eta hiriburuetan hazi den gehien guztizko aurrekontua (% 8,8), ez da berdin gertatu kultura-aurrekontuari dagokionez, % 0,1eko hazkundera besterik ez baitu izan. Ondorioz, haren kultura-ahalegina murriztu egin da 2012ko emaitzekiko.


20.000 biztanletik gorako udalerrien artean, berriz, kultura-gastuak hazkundera arina izan du (% 2), eta horrek, guztizko gastuaren jaitsierarekin batera (ia-ia % 3), kultura-ahalegina zertxobait areagotzea eragiten du; horixe da inoiz izandako baliorik handiena estatistika hori neurtzen hasi zenetik.

4. irudia. **Kulturan egindako gastua eta guztizko aurrekontuak, administrazio-mailaren arabera**

(%) 2008-2014

Entitate mota	Urtea	Likidatutako kultura-gastua		Aurrekontua, guztira		Likidatutako Kultura-gastua, Guztizko aurrekontuarekiko
		€	Bilakaera %	€	Bilakaera %	
Eusko Jaurlaritzia	2008	66.187.953		9.317.300.321		0,7%
	2010	76.014.402	14,8%	10.327.556.000	10,8%	0,7%
	2012	67.030.544	-11,8%	10.246.437.704	-0,8%	0,7%
	2014	79.165.372	18,1%	10.053.537.686	-1,9%	0,8%
Foru Aldundiak	2008	104.678.140		2.911.976.568		3,6%
	2010	89.438.424	-14,6%	3.064.987.565	5,3%	2,9%
	2012	78.979.640	-11,7%	2.897.406.350	-5,5%	2,7%
	2014	76.764.863	-2,8%	2.616.316.872	-9,7%	2,9%
Udalak	2008	301.425.557		3.245.391.087		9,3%
	2010	294.970.482	-2,1%	3.380.703.915	4,2%	8,7%
	2012	216.102.317	-26,7%	2.731.467.008	-19,2%	7,9%
	2014	212.974.567	-1,4%	2.791.249.926	2,2%	7,6%

5. irudia. **Kulturan egindako gastua udalen guztizko aurrekontuei dagokienez, udalerriaren neurriaren arabera (%)**. 2008-2014



2008-2014 aldaketa	< 5.000 biztanle	5.000 – 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak
Kultura-aurrekontua	▼ 45,1%	▼ 25,7%	▼ 8,6%	▼ 36,3%
Aurrekontua, guztira	▼ 31,9%	▼ 11,0%	▼ 12,1%	▼ 10,8%

2008-2014 aldaketa	< 5.000 biztanle	5.000 – 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak
Kultura-aurrekontua	▼ 18,2%	▲ 2,2%	▲ 1,8%	▲ 0,1%
Aurrekontua, guztira	▼ 11,9%	▲ 4,4%	▼ 2,7%	▲ 8,8%

2.3. Bestelako sail eta arloek kulturaren egindako gastua

Kulturara bideratutako gastuaren % 90 administrazioen Kultura Sailetatik bertatik egin da. 2014an, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek kulturara bideratutako gastua guztizkoaren % 9,7 izan zen, 2012an baino % 25,1 gutxiago (kultura-gastura bideratutako 10,2 milioi eurotik 7,6 milioira igaro zen). Gastu horren zati handi bat musika-eskolen finantzaketari dagokio, Hezkuntza Sailburuordetzaren ardurapekoa.

Foru-aldundietan, baina, joera alderantzizkoa da. Kultura-alorrek egindako gastuak behera egin du, % 99,2ra 2012an eta % 92,7ra 2014an; horrek inbertsio handiagoa dakar beste alor batzuetan. 2012an, foru-aldundietako beste alor batzuek kulturara bideratutako gastua 619.600 eurokoa izan zen (% 0,8); 2014an 5,5 milioikoa izan da (% 7,3).

6. irudia. Kulturaren egindako gastua, gastu hori egin duten sailei dagokienez, administrazio-mailaren arabera

(euroak eta %-ak) 2008-2014

Entitate mota	Urtea	Kultura Saila		Bestelako sailak		Kultura-gastua guztira	
		€	%	€	%	€	% horizontala
Eusko Jaurlaritza	2008	57.229.844	86,5	8.958.109	13,5	66.187.953	100,0
	2010	65.952.485	86,8	10.061.917	13,2	76.014.402	100,0
	2012	56.830.594	84,8	10.199.949	15,2	67.030.544	100,0
	2014	71.525.382	90,3	7.639.990	9,7	79.165.372	100,0
Foru Aldundiak	2008	103.549.920	98,9	1.128.220	1,1	104.678.140	100,0
	2010	89.388.424	99,9	50.000	0,1	89.438.424	100,0
	2012	78.360.020	99,2	619.620	0,8	78.979.640	100,0
	2014	71.197.658	92,7	5.567.206	7,3	76.764.863	100,0
Udalak	2008	261.180.398	86,6	40.245.159	13,4	301.425.557	100,0
	2010	250.000.083	84,8	44.970.399	15,2	294.970.482	100,0
	2012	195.291.075	90,4	20.811.242	9,6	216.102.317	100,0
	2014	194.042.651	91,1	18.931.916	8,9	212.974.567	100,0

Udalek aurreko urteetako joerarekin jarraitzen dute, hots, bestelako sailek kultura-gastuan duten parte-hartzea murriztearekin; 2008tik hona horiek kulturara bideratutako gastuak % 53,0 egin du behera (2008ko 40,2 milioi eurotik 2014ko 18,9 milioi eurora). Ekarpenen artean nabarmentzekoak dira udal musika-eskoletara egindako transferentziak, edo Gazteria- edo Euskara-sailek kudeatutako kultura-gastua.

7. irudia. Kulturaren egindako udal-gastua, gastu hori egin duten sailei dagokienez, udalerrriaren tamainaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2014

Udalerrriaren tamaina	Urtea	Kultura Saila		Bestelako Sailak		Kultura-gastua guztira	
		€	%	€	%	€	% horizontala
< 5.000 biztanle	2008	37.225.044	84,2	7.004.246	15,8	44.229.290	100,0
	2010	32.740.976	91,3	3.134.856	8,7	35.875.832	100,0
	2012	27.851.438	93,8	1.837.525	6,2	29.688.963	100,0
	2014	23.080.671	95,0	1.207.982	5,0	24.288.653	100,0
5.000-20.000 biztanle	2008	72.831.331	97,0	2.239.908	3,0	75.071.239	100,0
	2010	69.167.088	94,9	3.685.649	5,1	72.852.737	100,0
	2012	52.140.821	95,5	2.456.728	4,5	54.597.549	100,0
	2014	53.789.838	96,4	2.001.111	3,6	55.790.949	100,0
> 20.000 biztanle	2008	57.897.542	94,9	3.087.651	5,1	60.985.193	100,0
	2010	57.432.169	92,7	4.532.084	7,3	61.964.253	100,0
	2012	49.063.244	89,6	5.699.128	10,4	54.762.372	100,0
	2014	52.086.373	93,4	3.659.856	6,6	55.746.229	100,0
Hiriburuak	2008	93.226.481	77,0	27.913.354	23,0	121.139.835	100,0
	2010	90.659.850	72,9	33.617.810	27,1	124.277.660	100,0
	2012	66.235.572	86,0	10.817.861	14,0	77.053.433	100,0
	2014	65.085.769	84,4	12.062.967	15,6	77.148.735	100,0
Udal guztiak	2008	261.180.398	86,6	40.245.159	13,4	301.425.557	100,0
	2010	250.000.083	84,8	44.970.399	15,2	294.970.482	100,0
	2012	195.291.075	90,4	20.811.242	9,6	216.102.317	100,0
	2014	194.042.651	91,1	18.931.916	8,9	212.974.567	100,0

Bestelako sailek kultura-gastuan izandako parte-hartzea murriztea orokorra izan arren, inpakturik handiena 5.000 biztanletik beherako udaletan (-% 82,8) eta hiriburuetan (-% 56,8) izan da. Termino absolututan, hiriburuetakoa jaitsierak azaltzen du murrizketa nabarmen hori, 2008tik hona bitartean 15,8 milioi euro gutxiago bideratu baitute.

2.4. Erakunde mota bakoitzak kulturaren egindako gastuaren bilakaera

Aurreko edizioetan ikus zitekeen moduan, gastu publikoaren zatirik handiena gastu arruntera bideratzen da: 10 eurotik 8/9 Eusko Jaurlaritzaren (% 82,9), foru-aldundiaren (% 78,9), udalen (% 92,5) eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan (% 86,8).

Inbertsioetara eta kapital-operazioetara bideratutako aurrekontua (VI. eta VII. kapituluak) % 17-19 ingurukoa da foru-aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, % 13 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan eta % 7,3 udaletan.

Finantza-aktiboak eta -pasiboak ez dira ezein administrazioen kultura-gastuaren % 1,5 baino gehiagokoak.

2008 eta 2014 bitarteko gastuaren izaera ekonomikoaren bilakaera behatuta, aldakuntzarik garrantzitsuenak Eusko Jaurlaritzarena da, bere gastu arrunta % 37,6 hazi baitu. Hazkunde hori II. kapituluaren aipatutako kalte-ordainaren bidez azal daiteke.

8. irudia. Kulturaren egindako gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta erakunde motaren arabera

(eurotan eta ehunekotan) 2008-2014

Izaera ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	2008	47.712.797	72,1	64.016.192	61,2	229.738.885	76,2	129.299.117	92,0
	2010	52.146.794	68,6	56.369.013	63,0	227.405.112	77,1	119.439.236	90,6
	2012	53.366.145	79,6	53.967.403	68,3	202.646.631	93,8	138.321.163	83,2
	2014	65.652.143	82,9	60.578.382	78,9	196.971.148	92,5	135.146.496	86,8
Kapital-gastua	2008	14.348.144	21,7	37.446.544	35,8	71.543.370	23,7	11.178.519	8,0
	2010	20.036.642	26,4	29.884.967	33,4	67.436.080	22,9	12.339.365	9,4
	2012	12.853.641	19,2	13.926.494	17,6	13.345.646	6,2	27.732.748	16,7
	2014	13.511.079	17,1	15.099.628	19,7	15.600.918	7,3	20.383.385	13,1
Finantza-aktibo eta -pasiboak	2008	4.127.012	6,2	3.215.404	3,1	143.302	0,0	44.041	0,0
	2010	3.830.966	5,0	3.184.444	3,6	129.290	0,0	58.109	0,0
	2012	810.758	1,2	11.085.743	14,0	110.040	0,1	174.164	0,1
	2014	2.150	0,0	1.086.853	1,4	402.501	0,2	225.790	0,1
GUZTIRA	2008	66.187.953	100,0	104.678.140	100,0	301.425.557	100,0	140.521.677	100,0
	2010	76.014.402	100,0	89.438.424	100,0	294.970.482	100,0	131.836.710	100,0
	2012	67.030.544	100,0	78.979.640	100,0	216.102.317	100,0	166.228.075	100,0
	2014	79.165.372	100,0	76.764.863	100,0	212.974.567	100,0	155.755.671	100,0


Kapital-gastuek jasan dituzten aldaketak are deigarriagoak dira: foru-aldundietan % 59,7 murriztu dira 2008az geroztik, eta udaletan % 78,2. Hala ere, erakunde autonomoek eta sozietate publikoek % 82,3 gehiago bideratzen dute kapital-gastuetara 2014an 2008an baino.

Finantza-aktiboek eta -pasiboek jasan dute aldakuntza esponentzialena; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien kasuan, erdia baino gehiago murriztu dira.

Gastu arrunta eta, zehazki, II. kapitulua aztertzen bada (ondasun eta zerbitzuen gastu arrunta), Eusko Jaurlaritzan izan ezik, egiturazkoak ez diren zerbitzuetako gastua da nagusi, hots, zerbitzuak kontratatzerara eta iraunkorrak ez diren kultura-jarduketetara zuzendutakoa: % 49,0 udaletan, % 53,9 foru-aldundietan eta % 59,1 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan.

Eusko Jaurlaritzan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten % 89,6 beste gastu batzuei dagokie, aurretik aipatutako kalte-ordainera bideratutako aurrekontu-partida gehitzearen ondorioz.

9. irudia. **Ondasun eta zerbitzuen gastu arrunta, zerbitzu eta erakunde motaren arabera (%) 2014**



Herri-administrazioetako (Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako) kultura esku-hartzearen alorre dagokionez, 2012an ondare-gastua izan zen kaltetu nagusia; aldiz, 2015an, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek alor horretan egindako gastua suspertu egin da. Bilakaerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2008an baino % 23 gehiago bideratu du ondarrera 2014an.

Aldundien kasuan ere beherakada hauteman daiteke azken aldian, hain zuzen % 42,2koa 2012an eta % 35ekoa 2014an. Herri-administrazioetan, sendotu egin da arteetara eta kultura-industrietarazuzendutako aurrekontua, 2012ko % 63,5etik 2014ko % 68,9ra.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan, estatistikara erakunde berriak gehitzearen eta beste batzuk kanpoan geratzearen ondorioz, aldaketa handiak izan dituzte, eta horrek azaltzen ditu edizio desbertinetan izandako emaitzak.

10. irudia. **Kulturaren egindako gastua, kultura-esparruen eta entitate motaren arabera**

(euroak eta %-ak) 2008-2014

Esparruak	Urtea	Eusko Jaurlaritzak		Foru Aldundiak		Udalak		Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea guztira¹	2008	30.496.030	46,1	70.406.879	67,3	60.758.816	20,2	24.972.034	17,8
	2010	30.388.806	40,0	62.258.229	69,6	54.216.125	18,4	34.137.709	25,9
	2012	22.595.642	33,7	42.591.571	53,9	34.828.657	16,1	37.679.436	22,7
	2014	37.499.058	47,4	43.465.100	56,6	29.036.477	13,6	32.624.058	20,9
Arteak eta industriak guztira²	2008	34.437.505	52,0	31.131.223	29,7	163.392.612	54,2	100.863.641	71,8
	2010	42.417.764	55,8	24.742.436	27,7	186.113.524	63,1	82.539.474	62,6
	2012	43.206.775	64,5	33.304.257	42,2	137.247.327	63,5	114.915.669	69,1
	2014	40.525.686	51,2	26.869.159	35,0	146.743.846	68,9	111.903.286	71,8
Jaiak eta herri-kultura	2008	0	-	281.023	0,3	37.112.523	12,3	6.077.030	4,3
	2010	31.910	0,0	24.334	0,0	31.830.164	10,8	5.699.264	4,3
	2012	0	-	175.706	0,2	29.173.736	13,5	4.995.485	3,0
	2014	0	-	611.343	0,8	25.205.602	11,8	4.462.684	2,9
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2008	1.254.418	1,9	2.859.015	2,7	40.161.606	13,3	8.608.972	6,1
	2010	3.175.922	4,2	2.413.425	2,7	22.810.669	7,7	9.460.263	7,2
	2012	1.228.127	1,8	2.908.106	3,7	14.852.597	6,9	8.637.485	5,2
	2014	1.140.628	1,4	5.819.261	7,6	11.988.642	5,6	6.765.642	4,3
GUZTIRA	2008	66.187.953	100,0	104.678.140	100,0	301.425.557	100,0	140.521.677	100,0
	2010	76.014.402	100,0	89.438.424	100,0	294.970.482	100,0	131.836.710	100,0
	2012	67.030.544	100,0	78.979.640	100,0	216.102.317	100,0	166.228.075	100,0
	2014	79.165.372	100,0	76.764.863	100,0	212.974.567	100,0	155.755.671	100,0

¹ Arlo hauek hartzen ditu barnean: ondarea eta arkeologia; liburutegiak; museoak eta artxiboak.

² Honako hauek hartzen ditu barnean: antzerkia eta dantza; musika; ikusizko arteak; zinema eta ikus-entzunezkoak; literatura eta edizioa; kultura-ekintza eta bertsolaritza.

Eusko Jaurlaritzza


Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuak funtsezko aldaketak izan ditu 2014an, behin baino gehiagotan aipatu dugun kalte-ordainaren ondorioek eraginda. Partidaren kopuruak (18,4 milioi euro) desitxuratu egiten dituzten gastuaren bilakaeraren analisia, bai haren izaera ekonomikoaren ikuspegitik egindakoa, bai kultura-arloetatik egindakoa.

Lehenik, transferentzietako gastuaren jaitsiera azpimarratu beharra dago; 2012an izandako gastuko 10 eurotik 8 transferentzietara zegozkien, arruntei nahiz kapitalekoei, eta 2014an 10etik 6 izatera pasatu dira, % 47,6ko eta % 16,9ko pisuarekin, hurrenez hurren. Datuak alderatuta, ikus daiteke transferentzia arruntetako gastua % 14,1 murriztu dela azken aldian.

Bigarrenik, nabarmentzekoa da ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren hazkundera, % 7,8ko pisua izatetik % 30,0koa izatera pasatu baitira, hau da, 2012ko 5,2 milioi eurotik 2014ko 23,7 milioira. 2008a geroztik izandako bilakaerari erreparatuta, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak laukoiztu egin dira.

11. irudia. **Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren arabera**


(%) 2008-2014



Egindako gastuaren helmugari dagokionez, arteak eta industriak dira oraindik ere inbertsio nagusiak, nahiz eta azken aldiaren beherakada handia pairatu duten. 2012an, Eusko Jaurlaritzak arteei eta industriei dagokienez kulturaren egindako gastua %64,5koa izan zen; 2014an, baina, % 51,2koa. Ondare-gastua % 65,9 hazi da, 22,6 milioi eurotik (% 33,7) 37,5 milioi eurora pasatuaz (% 47,5).

Illo horretan, ikus daiteke 2014an Eusko Jaurlaritzako 10 eurotik 4,74 ondare-gastura bideratu direla, 10etik 5,12 arteetara eta industrietara eta 10etik 0,14 zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara.

12. irudia. **Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastua kultura-esparruen arabera (%) 2008-2014**



Foru Aldundiak


Foru-aldundiak kulturaren egindako gastuaren ia % 60 bideratu dute transferentzietara (44,4 milioi euro), bereziki transferentzia arruntetara (% 44,3), hain zuzen 34 milioi euro.

Foru-aldundiak kulturaren egindako gastua aztertuz gero, 2008tik hona behera egin duela egiazta daiteke (% 56,7); termino absolututan, 2008an kulturaren egindako 104,7 milioi euroko gastutik 2014ko 76,8 milioi euroko gastura pasatu da.

Nabarmendu beharra dago 2014an gastu-kapitulua gehienek gora egin dutela edo mantendu egin direla, eta horrek arindu egiten duela azken urteetan izandako jaitsiera; finantza-aktiboak, baina, % 90 murriztu dira (2012ko 11,1 milioi eurotik 2014ko milioi 1era pasatu dira). Langileria-gastuen kapitulua hazi da gehien, % 17,7 hazi baita (2012ko 14,8 milioi euroko gastutik 2014ko 17,4 milioi euroko gastura pasatuaz), eta VI. kapitulua, inbertsio errealak, murriztu da gehien, % 76,5 egin baitu behera (2012ko 20,2 milioi euroko gastutik 2014ko 4,8 milioi euroko gastura pasatu da).

13. irudia. Foru-aldundiak kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren arabera

(%) 2008-2014




Foru-aldundiek kulturaren egindako gastuaren helmugari dagokionez, azpimarratu beharra dago gastuaren erdia baino gehiago (% 56,6) ondareari bideratzen dela, % 35,0 arteetara eta industrietara, % 7,6 zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara eta % 1 baino gutxiago jaietara eta herri-kulturara.

Gastuaren bilakaera aztertuta, ikus daiteke ia arlo guztietan egin duela gora azkenaldian, arteetan eta industrietan izan ezik, 2012ko % 42,2tik 2014ko % 35,0ra pasatu baita. 2008az geroztik murrizten joan da ondareari eta arteei eta industriei dagokien gastua. 2008an ondare-gastua 70,4 milioi eurokoa zen, eta 2014an 43,5 milioi eurokoa, % 38,3 gutxiago. Arteetako eta industrietako gastuak beherakada arinagoa izan du, eta 2008ko 31,1 milioi eurotik 2014ko 28,9 milioi euro pasatu da (2008an baino % 7,3 gutxiago, alegia).

Aintzat hartu beharra dago zuzendaritza eta zerbitzu orokorretan eta jai eta herri-kulturaren egindako gastuek, kulturaren egindako gastuaren % 10 baino gehiago izan ez arren, % 100 baino gehiago egin dutela gora, 2,8 milioi eurotik 5,8 milioi euro eta 281.000 eurotik 611.300era, hurrenez hurren.

14. irudia. Foru-aldundiek kulturaren egindako gastua kultura-esparruen arabera


(%) 2008-2014



Udalak

Udalek kulturaren egindako gastua 213 milioi eurokoa izan da. Kapitulu ekonomikoen arabera egindako gastuaren banaketari erreparatzen badiogu, ikus daiteke herri-administrazioek transferentzia arruntetara zuzentzen dutela aurrekontua gehienbat (% 40,5 2014an), bai eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara (% 29,1) eta langileria-gastuetara ere (% 22,7). Hiru kapituluetatik II.ak, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei buruzkoak, izan du, kopuru absolututan, jaitsierarik handiena, 2008ko 80,3 milioi eurotik 2014ko 62,0 milioira pasatu baita.

15. irudia. **Udalek kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren arabera (%) 2008-2014**



Estatistikaren aurreko edizioan hauteman daitekeen moduan, beherakadarik nabarmenena inbertsioetan izan da, VI. kapituluak (2012an gastua ia 39 milioi euroan murriztu da 2010arekiko, eta 57,7 milioi euroan 2008arekiko); hala ere, 2014an hazkunde arina ikus daiteke 2012arekiko, inbertsioa 9,5 milioi eurotik 10,1 milioira hazi baita (% 6,7).


Era berean, aldaketa handiak hautematen dira kapital-transferentziei buruzko VII. kapituluan, ia 15 milioi euroko beherakadarekin; hala ere, apur bat arintzen du 2014ko hazkundeak, 2012ko 3,9 milioi eurotik (% 1,8) 2012ko 5,5 milioira pasatu baita (% 2,6).

EAEko udalek egindako gastuaren kultura-esparruen arabera ez da gehiegi aldatu azken urteetan; aldaketarik azpimarragarriena arte eta industriena da, 2012ko % 63,5etik 2014ko 68,9ra igo baita.

Termino absolututan, berriz, 2008tik aurrera jaitsiera handia izan dela erakusten dute datuek. Jaitsierarik handiena izan duen alorra zuzendaritza eta zerbitzu orokorra da; izan ere, 2008an gastua 40,2 milioi eurokoa zen, eta 2014an 12,0 milioikoa. Ondarean erabilitako gastuak erdiraino egin du behera 2008az geroztik (orduko 60,7 milioi eurotik 2014ko 29,0 milioi eurora). Haren atzean kokatzen dira jaiak eta herri-kultura, % 30 baino gehiagoko beherakadarekin, 37,1 milioi eurotik 25,2 milioira pasatuaz. Eta azkenik, arteetako eta industrietako gastuak eutsi dio ongien, % 10eko beherakadarekin: 2008ko 163,4 milioi eurotik 2014ko 147,7 milioira. Aurretiaz aitatu den moduan, kontuan izan beharra dago 2014an arte eta industriena izan dela herri-administrazioen aldetik gastu handiagoa duen Kultura-esparru bakarra.

16. irudia. **Udalek kulturaren egindako gastua kultura-esparru arabera**

(%) 2008-2014




Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak

Aurreko edizioan ikus daitekeen moduan, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetako 10 eurotik 8 I. eta II. kapituluei dagozkie; 2014an, 66,4 milioi euro langileria-gastuetan eta 66,6 milioi euro ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan.

Alderaketak egiteko orduan, ezinbestekoa da kontuan hartzea erakundeen errolda aldatu egin dela estatistikaren edizio batetik bestera.

17. irudia. Erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren arabera


(%) 2008-2014



Gastuaren helmugari dagokionez, arteen eta industrien esparrua nabarmendu beharra dago; izan ere, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek 10 eurotik 7 bideratzen dute esparru horretara.

18. irudia. **Erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kulturaren egindako gastua kultura-esparruen arabera**

(%) 2008-2014



2.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera

Eusko Jaurlaritzak 2014an hedabideetan egindako gastua 108,7 milioi eurokoa izan da, 2008an baino % 24,0 txikiagoa. Kopuru horren zatirik handiena (% 96,2) transferentzia arruntei dagokie, hain zuzen 107,6 milioi euro, bai eta Euskal Irrati Telebistara zuzendutako finantza-aktiboei ere (milioi bat euro).


Foru-aldundie keuskarazko tokiko hedabideetara zuzentzen dute beren aurrekontua, % 59,8 transferentzia arruntetara eta % 40,2 kapital-transferentzietara bideratuz; guztizko termino absolututan, foru-aldundiek baino ez dute igo hedabideetara zuzendutako gastua, % 6,6ko hazkundearekin 2012rekiko.

Udalek izan dute hedabideetarako gastuaren murrizketarik handiena, % 48,0 gutxiago 2012rekiko, 2012ko 3,0 milioi eurotik 2014ko 1,5 milioira pasatuaz.

Gastu kontsolidatuaren azterketak⁴ antzekotasunak erakusten ditu 2012an hauteman daitezkeen aldakuntzei dagokienez. Gastu kontsolidatuak behera egiten jarraitzen du, % 17,3, 2012 eta 2014 bitartean, eta horrek, 2012an ikusten zen moduan, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren jaitsiera adierazten du (II. kapitulu), 2012an baino % 23,6 gutxiago. Ahultzen jarraitzen badu ere, II. kapituluak gastuaren zatirik handiena pilatzen jarraitzen du, hedabideen guztizkoaren % 51,4rekin.

19. irudia. **Komunikabideetara bideratutako kultura-gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera**

(%) 2008-2014



⁴ Hori lortzeko herri-administrazioen gastua batu eta bikoiztutako transferentziak kendu egin behar dira.

20. irudia. **Komunikabideetara bideratutako kultura-gastua, kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera**

(euroak) 2008-2014

Kapitulu ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	Gastu kontsolidatua
I. kap.: Langileria-gastuak	2008	150.000	0	126.501	52.594.000	52.870.501
	2010	154.669	0	305.675	59.841.719	60.302.062
	2012	114.000	5.419	277.106	54.419.216	54.815.742
	2014	114.000	0	154.624	55.544.388	55.813.012
II. kap.: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak	2008	0	0	868.244	116.711.454	117.579.698
	2010	15.066	0	517.606	116.973.461	117.506.133
	2012	166.656	10.993	742.776	83.026.868	83.947.294
	2014	0	0	274.659	63.848.248	64.122.907
III. kap.: Finantza-gastuak	2008	0	0	0	330.702	330.702
	2010	0	0	0	68.461	68.461
	2012	0	0	0	19.154	19.154
	2014				33.248	33.248
IV. kap.: Transf. arruntak	2008	129.400.206	0	1.012.918	2.340	1.015.258
	2010	138.717.777	0	942.520	0	987.520
	2012	126.086.284	1.128.740	1.967.185	0	7.864.939
	2014	107.634.000	733.295	1.118.092	2.000	1.853.387
VI. kap.: Inbertsio errealak	2008	0	0	27.243	7.375.000	7.402.243
	2010	0	0	0	3.717.222	3.717.222
	2012	0	6.033	2.006	4.184.554	4.192.593
	2014	0	0	7.445	1.657.609	1.665.054
VII. kap.: Kapital-transf.	2008	13.530.445	0	0	0	0
	2010	4.776.054	0	0	0	0
	2012	4.800.000	476	0	0	0
	2014	0	493.896	0	0	493.896
VIII. kap.: Finantza-aktiboak	2008	0	0	0	0	0
	2010	4.160.000	0	0	0	4.160.000
	2012	1.700.000	0	0	0	476
	2014	1.000.000	0	0	0	701.114
IX. kap.: Finantza-pasiboak	2008	0	0	0	0	0
	2010	0	0	0	0	0
	2012	0	0	0	0	0
	2014	0	0	0	0	0
GUZTIRA	2008	143.080.651	0	2.034.906	177.013.496	179.198.402
	2010	147.823.566	0	1.765.801	180.600.863	186.741.398
	2012	132.866.940	1.151.661	2.989.073	141.649.792	150.840.198
	2014	108.748.000	1.227.191	1.554.820	121.085.493	124.682.618

3. KULTURA-GASTUA ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA

Atal honetan, azterketa hiru administrazio-mailen arabera egin da, alegia, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak. Maila bakoitzean administrazioaren zuzeneko gastuak sartzen dira, bai eta horren mendeko erakunde autonomoenak, edota administrazioaren partaidetza duten fundazio, enpresa publiko edo beste entitateenak ere, baldin eta EAEko herri-administrazioen ekarpena entitateon baliabideen % 50a baino handiagoa bada.

Partidetan bi aldiz ez kontatzeko, gastuaren kontsolidatze-prozesu bat gauzatu da administrazio-maila bakoitzean; horri esker, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek zein udalek kulturaren egindako gastuaren irudi zehatza lortzen da, administrazio-maila bakoitzak duen kudeaketa-eredua dena delako izanik.

3.1. **Transferentzia fluxuak administrazio-mailen arabera**


Kontsolidatze-prozesuaren lehenengo urratsa administrazio-maila bakoitzak bere mendeko erakunde autonomikoei, sozietate publikoei eta fundazioei egindako transferentziak identifikatzea da.

